

Zoriontsu luzaro bizi bedi.

Mateo Mujika Apezpiku jaun berriya'ri

Mallaz goitu dan Mateo jaunak
barka nazala aurrena,
ezkeintzen diyot nagon lekutik
nere biyotzan laurdena;
zaticho ori aski du gaurko
eziñ eman det gaur dena,
ezkerduun artu lezake gogoz
batek ematen dubena,
zorrik badiyo, Euskal-erriak
emango diyo urrena.

Goi mallak ondo achitzen ditu
gizon argitsu pizkorrak,
eta zabaldu jakin gai onak
mingaiñ legundunizkorrak;
orren biyotzik ez du zulatu
gazta zar gisan liztorrak,
baizik erleak eman diyozka
on gai goso ta bilkorrak,
bere abotik datozen itzak
ontzat ar bitza ilkorrak.

Zoriontsu ta luzare bizi
bedi jaun goitu berriya,
erramu lorez osa duben au
Beasain dei dan erriya,
sendatuko du animaz gaišo
arki dan gizon eriya,
opaki goitsuz agerturikan
guztiz samurki egiya,
biyotz laurdena ezkeñi diyot
baña ar beza erdiya.

Gure albista Euskal erriak
emango diyo osua,
edo Ama zar beri gazte dan
aren odol on gozua;
bere seme bat goitzen ikustez
pozak arki da gaisua
bularpez edo magal gañean
pallakatuaz ušua,
begi bitatik dago pozakin
malkodun edo urtsua.

JUAN IGNACIO URANGA